

UPV/EHU n papera murrizteko eta zentzuz erabiltzeko kanpaina

Campaña para la reducción y uso racional del papel en la UPV/EHU

JARDUNBIDE EGOKIAK:

Murriztu ingurumen inpaktua paperaren ekoizpenean: uraren, energiaren eta basoko baliabideen kontsumo txikiagoa eta hondakin uretan kutsadura karga txikiagoa.

Paperaren kontsumoa minimizatuta, ekoizpen lantegien inguruko airearen kalitatea hobetzen ere laguntzen ari zara: zuhaitz batek 6 kg CO₂ inguru xurgatzen ditu urtean. Paper bat tona aurreztuta, urtebetean 102 kg CO₂ xurgatzen laguntzen dugu.

BUENAS PRÁCTICAS:

Reduce el impacto ambiental en la producción del papel: menor consumo de agua, de energía, de recursos forestales y de carga contaminante de las aguas residuales.

Minimizando el consumo de papel también contribuyes en la mejora de la calidad del aire en el entorno de las plantas de producción: un árbol absorbe alrededor de 6 kg. de CO₂ al año. Ahorrando una tonelada de papel contribuimos a la absorción de 102 kg. de CO₂ en un año.

MURRIZTU ZURE INGURUMEN AZTARNA

Minimizatu paperaren ingurumen inpaktua

REDUCE TU HUELLA AMBIENTAL

Minimiza el impacto ambiental del papel

UPV/EHU n papera murrizteko eta zentzuz erabiltzeko kanpaina

Campana para la reducción y uso racional del papel en la UPV/EHU

JARDUNBIDE EGOKIAK:

Lan egin euskarri informatikoan, eta erabili komunikazioko baliabide elektronikoak dokumentuak gordetzeko eta partekatzeko; eman lehentasuna euskarri horri barneko eta kanpoko komunikazioetarako.

Gogoan izan dokumentuak hobeto ikusteko zooma erabil dezakezula, edo Ctrl + saguaren gurrupila.

Bultzatu papera ez erabiltzearen ohitura, zure sinadura elektronikoari ohar bat gehituta. Bertan, zure kontaktuei inprimatu aurretik ongi pentsatzeko eskatuko diezu.

BUENAS PRÁCTICAS:

Trabaja en soporte informático, utilizando los medios de comunicación electrónicos para guardar y compartir documentos y fomentando este soporte para comunicaciones internas y externas.

Recuerda, puedes visualizar mejor los documentos utilizando el zoom o Ctrl + rueda del ratón.

Promueve la costumbre de no usar papel, añadiendo una nota a tu firma electrónica en la que pidas a tus contactos que se lo piensen antes de imprimir los correos.

**INPRIMATU, EZ.
ZERTARAKO?**

Aukera ezazu formatu digitala

**IMPRIMIR, NO.
¿PARA QUÉ?**

Pásate al formato digital

PAPER ONA JOKATU!
¡HAZ UN BUEN PAPEL!

UPV/EHU n papera murrizteko eta zentzuz erabiltzeko kanpaina

Campana para la reducción y uso racional del papel en la UPV/EHU

JARDUNBIDE EGOKIAK:

Erabili paper birziklatua: paper birziklatuaren tona batek 17 zuhaitz moztea eta 30.000 litro ur xahutzea saihesten du, baita beste hainbat baliabide ere, eta baliabide horietako batzuk ez dira berriztagarriak.

Ez diezazutela ziria sar! Paper birziklatua ez da garestiagoa, ez da inprimagailuan trabatuta geratzen eta ez du hautsik ateratzen, betiere ez baduzu kalitate eskaseko papera erabiltzen. Aukera ezazu «Ecolabel» Europako Etiketa Ekologikodun papera.

Berrerabili erabilitako orri, karpeta eta gutun-azalak.

BUENAS PRÁCTICAS:

Utiliza papel reciclado: una tonelada de papel reciclado evita talar 17 árboles y gastar 30.000 litros de agua, entre otros recursos, algunos no renovables.

Que no te engañen, el papel reciclado ni es más caro ni atasca las impresoras ni suelta polvo, siempre y cuando no se opte por papeles de baja calidad. Apuesta por el papel con Etiqueta Ecológica Europea «Ecolabel».

Reutiliza hojas, carpetas y sobres usados.

**INPRIMATU
BEHAR BADUZU,
EKO IZAN DADILA**

Aurreztu eta aukeratu
paper birziklatua

**SI IMPRIMES, QUE
SEA ECO**

Ahorra y opta por el
papel reciclado

UPV/EHU n papera murrizteko eta zentzuz erabiltzeko kanpaina

Campana para la reducción y uso racional del papel en la UPV/EHU

JARDUNBIDE EGOKIAK:

Hartu behar duzun beste denbora makina bakoitzaren inprimatzeko edo fotokopiatzeko aukerak ezagutzeko.

Inprimatu ezazu soilik behar-beharrezkoa dena, zirriborro moduan eta alde bitan; eta, ahal izanez gero, orrialde bakoitzean bi orri edo gehiago.

Inprimatu aurretik dokumentuak berrikusi eta konfiguratu: zuri-beltzean inprimatzea hobetsi koloretan barik, lerroarte sinplea, leku gutxiago hartzen duten letra-iturriak, marjina txikiak, eta abar erabili etc.

Erabili ortografia-berrikuspena eta inprimatu aurretiko bista.

BUENAS PRÁCTICAS:

Invierte el tiempo necesario en conocer las opciones de impresión o fotocopiado de cada máquina.

Imprime sólo lo necesario, en modo borrador y a doble cara y, si es posible, dos páginas o más por cara.

Revisa y configura los documentos antes de imprimir: blanco y negro frente a color; interlineado sencillo; fuentes de letra que ocupen menor espacio, márgenes reducidos etc.

Utiliza la revisión ortográfica y la vista previa de impresión.

DOITU ZURE INPRESIOA

Papera eta energia aurreztuko dituzu

AJUSTA TU IMPRESIÓN

Ahorrarás papel y energía

UPV/EHU n papera murrizteko eta zentzuz erabiltzeko kanpaina

Campana para la reducción y uso racional del papel en la UPV/EHU

JARDUNBIDE EGOKIAK:

Egin ezazu paperezko eta kartoizko hondakinak birziklatzearen alde; energia asko aurrezten eta berotegi efektuko gas gutxiago isurtzen lagunduko duzu: egun batean sortzen ditugun hondakin guztien % 18 papera da.

Bereizi paperezko hondakinak eta utz itzazu edukiontzi urdinean; hartara, birziklatu egingo dira paper birziklatua egiteko.

Kontuan izan badagoela birziklatu EZIN den papera:

- Autokopiatzeko papera, etiketa itsasgarriak eta distiradun papera (aldizkariak)
- Aluminio papera, komuneko papera eta paper sanitarioa
- Paperezko plater eta katiluak eta elikagai hondarrek zikindutako kaxak
- Edarien kartoioak (tetrabrikak)
- Erradiografiak eta argazkiak

Ahal dela ez puskatu edo zimurtu papera, eta kendu klipak, grapak, uztaiak, plastikozko leihoak (gutun-azaletan), zelo zatiak... eta, oro har, papera edo kartoia ez den gauza oro.

BUENAS PRÁCTICAS:

Apuesta por el reciclaje de los residuos de papel y cartón, contribuirás a ahorrar importantes cantidades de energía y a reducir las emisiones de gases de efecto invernadero: el papel representa el 18% de los residuos que generamos cada día.

Separa y deposita los residuos de papel en el contenedor azul, ello permitirá su reciclaje para la fabricación de papel reciclado.

Ten en cuenta que hay papel NO reciclable:

- Papel de autocopiado, etiquetas adhesivas y papel con brillo (revistas)
- Papel de aluminio y papel higiénico y sanitario
- Platos y tazas de papel y cajas sucias con restos de alimentos
- Cartones de bebidas (tetrabrikos)
- Radiografías y fotografías

Evita romper o arrugar el papel y deposítalo libre de clips, grapas, canutillos, ventanillas de plástico (sobres), trozos de cello, etc. y en general de cualquier elemento ajeno.

EGIN BIRZIKLATZEAREN ALDE!

Papera edukiontzi urdinean sartu

¡APUESTA POR EL RECICLAJE!

Deposita el papel en el contenedor azul